

Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko masterra

Gaitasunak

Gaitasunen mapa honek ikasketa planaren koherentzia eta adierazitako gaitasun guztien presentzia egokia ikusteko aukera ematen du, modulu eta ikasgaien arabera banatuta, eta prestakuntza proiektua osatzen duten gaitasun guztiak bermatzen ditu.

Bi modulu: Berariazko arloa eta oinarrizko arloa

Berariazko arloa

Jakintzagaia: **Genero indarkerian eta etxeko indarkerian esku hartzea 30 ECTS (NAH)**

- Indarkeria zikloaren fase guztietan, arriskuko egoerak, zailtasunak, gatazkak, babesgabetasuna eta desorekak hautematea, norberaren eta familiaren esku hartzerako estrategiarik egokiena ezartzeko.
- Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeekin elkarreraginean jardutea aldaketak lortzeko, haien garapena sustatzeko eta haien bizi baldintzak hobetzeko, esku hartzeko metodo, teknika eta prozedura egokiak erabiliz eta prozesuaren jarraipena eginez.
- Genero indarkeria jasaten duten emakumeentzako baliabideak eta zerbitzuak aukeratzea eta erabiltzea.
- Arriskua adierazten duten portaerak lantzea, portaerak osatzen dituzten egoerak eta inguruabarrak identifikatuz eta ebaluatuz eta horiek aldatzeko estrategiak prestatuz.
- Indarkeriaren biktima diren emakumeen hazkundera, garapena eta independentzia sustatzea, haien aukerak identifikatuz, banakako hazkunderako eta pertsonen arteko harremanetarako trebetasunak indartzeko taldeak eratzeko eta sortzeko.
- Gizartean esku hartzeko proiektuak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren diagnostikoa, bitartekaritza eta/edo prebentzioa egiteko.

Jakintzagaia: **Kanpoko praktikak 12 ECTS (NAH)**

- Eskuratutako ezagutzak eta arazoak konpontzeko gaitasuna ingurune berrietan edo gutxi ezagutzen direnetan aplikatzea, ikasketa eremuarekin lotutako testuinguru zabalagoetan (edo diziplina ugarikoetan).
- Taldean integratzea eta beste pertsona, arlo eta erakunde batzuekin elkarlanean jardutea, guztien helburuak lortzeko.
- Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeekin eta/edo indarkeria erabiltzen duten gizonekin esku hartzea, haien premiei, inguruabarrei, arriskuei, lehentasunezko aukerei eta baliabideei buruzko erabakiak hartzen laguntzeko, gizartean esku hartzeko printzipio etikoak kontuan hartuta.

- Gizartean esku hartzeko proiektuak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren diagnostikoa, bitartekaritza eta/edo prebentzioa egiteko.

Jakintzagaia: Masterraren amaierako lana 6 ECTS (NAH)

- Ondorioak eta horien euskarri diren ezaupide eta azken arrazoiak jakinaraztea, entzule espezializatuei eta ez-espezializatuei, argitasunez eta anbiguotasunik gabe.
- Ikasteko trebetasunak izatea, neurri handi batean autogidatuta eta era autonomoan jarraitu ahal izateko.

Oinarrizko arloa

Jakintzagaia: Diziplinarteko gizarte esku hartzea 6 ECTS (NAH)

- Ezaupideak integratzeko eta, informazio ez osotik edo mugatutik abiatuta, iritziak emateko konplexutasunari aurre egiteko gai izatea, eta ezaupide eta iritzi horiei lotutako erantzukizun sozial eta etikoei buruzko hausnarketak jasotzeko gai izatea.
- Beste pertsona batzuekin batera pentsamendua eta erreferentzia esparru komunak eraikitzea, lan-taldekoen adierazpenak kontuan hartuta.

Jakintzagaia: Gizartean esku hartzeko berriazko tresna profesionalak 6 ECTS (HAU)

- Bikaintasuna bilatzea lanbideko jardueran, emaitzetara bideratuta eta etengabeko hobekuntzan oinarrituta.
- Pertsonen eta erakundeen beharrei eta eskaerei erantzun egokia ematea, prozeduretan eta emaitzetan elementu berriak aldatuz edo sartuz.